

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdi Nagusia larunbatean Tafallan

Ekitaldia, Nafarroako Gobernuak babestuta, arratseko 7etatik aurrera ospatuko da Entzunaretoan

Ostirala, 2017.eko apirilak 28

Larunbat honetan, apirilak 29 Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdi Nagusia egingen da Tafallan, Euskal Kantuzaleen elkarteak antolatuta.

Martxoan hasi ziren Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatutako jaialdiak Nafarroako hainbat herritan, eta asteburu honetan izango da jaialdi nagusia, Tafallan. Osotara 27 ikastetxetako 500 ikasle inguruk parte hartu du, nola ez musika irakasleen laguntzarekin. Zangozan, Lakuntzan, Lesakan eta Burlatan izanak dira jada aurreko jaialdiak eta larunbat honetan, Tafallan, hainbat ikastetxetako partaideak aritu dira Jaialdi Nagusian. 45 euskal abesti abestuko dituzte kantariak, bai herrikoiak, modernoak, sorkuntzakoak, *a capella*, karaoke moduan eta baita soinu tresnen laguntzarekin ere.

Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdia Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin egingen da. Tafallan izango da Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzu Zuzendari Hasier Morras.

